




BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



«ERRI» ALDIZKARI KOMUNISTA, 22 ZENBAKI GERRA BETEAN

1937ko urtarrilean, EPK Euskadiko Partidu Komunistak "Erri" aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zuen, Juan Astigarribia Eusko Jaurlaritzako sailburuaren editoriala zuena. Bere argazki erreportajeetan gerraren eta Durango eta Gernikako bonbardaketen berri eman zuen. Zenbaki guztien azken orrialdean pertsonaia bat ageritzen: Gorki, Stalin, Engels, Marx, Sabino Arana... 22 zenbaki argitaratu zituen, azkena 1937ko uztailaren 12an.



HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA. MEMORIA
HISTORIKOAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA